

TRAFIKO LEGE BERRIA

Trafiko lege berria herrietan nola tramitatu oraindik ez dago garbi

■ Hernani barruan egindako 'infrakzioak' udalak tramitatu behar ditu ■ Orain arte diru multak bakarrik tramitatu izan ditu ■ Lege berriarekin urtean hiru 'falta grabe' egin ezker, karneta berriz atera beharko da.

TRAFIKO lege berria jarri dute eta aldaketa asko datoz. Gogorrena, karneta kendu egingo dutela bi urtean hiru falta grabe egin ezker. Eta gero, berriz atera beharko da.

UDALEN KONPETENTZIA
Trafikoko multek bere prozedura izaten dute: infrakzioa edo lege haustea egiten bada udalarenak ez diren bideetan, multa zuzenean joango da Trafikora. Lege-haustea udalarenak diren karreteretan egiten bada, multa udalak tramitatzeko du. Kasu horretan berdin du multa ertzainek edo udaltzainek jarri.

Udaltzaingoak Kronikari adierazi dionez, orain arte udalek (hiriburuak kenduta) isun ekonomikoak bakarrik tramitatu izan dituzte, ez karneta kentzea dakarkitenak. Legislazio berriak zer ekarriko duen oraindik ez dago argi, ez baitago garbi udalek zein arduraz izango duten.

Esaterako, herri barruan 50 km/o abiadura limitea egon eta 80 km/o belozidatean harrapatu ezker falta grabea da, eta hirutan eginda karneta kenduko dute. Denuntzia hori, udalak tramitatu behar du. Udaltzain buruak Kronikari esan dio udaltzaingoak asesori juridikoa eskatu duela.

HERNANIKO BIDEAK

Hernaniko periferiako hiru bide eta bariantea izan ezik Hernaniko karretera guztiak dira udalarenak. Honako hauek ez dira: Astigarragatik Zikuñagara eta Zinkoeneara; Galarretatik Urnietarakoa. Cuesta de la Muerte orain udalarena da. □



Cuesta de la Muerten 80tik gora joatea falta oso grabea da, lege berriaren arabera.

TRAFIKO LEGE BERRIA

Falta oso grabeak 1- Edanda gidatzea edo alkoholemia egitera ukatzea

Karneta kendu (gehenez 3 hilabete) + multa: 602 euro (100.000 pta)

2- Belozidatea. Abiadura limitea % 50 pasatzea (50 km/o limitean 80 km/o joatea)
3- Behar baino jende gehiago eramatea. Jende limitea % 50 pasatzea, txoferra kenduta. (Bost beharreen zazpi joatea).

Mobilik ez. Txofer joan eta mibiletik hitz egitekotan, 'eskuak libre' sistemarekin. Bestela, multa: 91 euro (15.000 pta)

Multak. Zati bat heziketa ikastaroak eginez ordaindu liteke. Karneta kentzea epeka bete liteke.

Presoak Euskal Herrira ekartzeko kontzentrazioa gaur

ETXERAT elkarteak hilabeteko azken ostiralean kontzentrazioa antolatzen du. Kontzentrazioan presoak Euskal Herriko kartzeletan egoteko duten eskubidea aldarrikatuko dute.

Gudarien plazan, arratsaldeko 20:00etan. □

Peral-en erakusketa gaur itxiko da

MUSIKA instrumentu tradizionalen erakusketa jarri du Daniel Peralek Biterin. Arrabitak, albokak.. denak berak eginak. Gaur da ikusteko azken eguna. 18:00-20:00. □

HHI/EPA-k matrikula zabalik du

HELDUEN Hezkuntza Iraunkorrak zabaldu du bigarren lauhileko matrikula eta otsailaren 1 arte egongo da. HHI-EPA Antziola 62 an dago. ☎ 943-335318. □

Alberto Rey 'Beto' atxilotu dute

POLIZIA frantsesak Alberto Rey Beto atxilotu du Landatan, errepi-de kontrol batean. Beto bilbotarra da, Hernanin bizi izan da. Iturri polizialek ETArekin lotzen dute. Hernaniko Askatasuna erakundeak batzarra eta manifestazioa egin zituen atzo, atxiloketa salatzen. Gaur bat egingo du Etxerat-ek antolatutako duen kontzentrazioarekin. □

Gitarra kontzertua Sandiusterrin

MUSIKA Eskolak antolatuta Armonia. Co Guitar Ensemble taldeak kontzertua emango du gaur. Arratsaldeko 19:30etan. □

OINDI

taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

Arrigoain
jatetxea
- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Karta
Santa Barbara 87 (Harrobian)
☎ 943 55 00 97
-Astelehen eta astearte gauetan itxia-

PUTZUETA
HARATEGIA - URDAITEGIA

Kardaberaz 39
Tel: 943 55 27 87
20120 HERNANI

BERTAKO FRUTA ETA BARAZKIAK
Erkerro
Fruituak
Antziola 2
20.120 HERNANI
Bertako produktuak
Fruitu exotikoak
Telefonoz eskatzeko:
☎ 943 33 32 75
Orain helbide berrian
gaituzu:
ANTZIOLA 2

MARI FA
ARRANDEGIA

Nagusia 36
943 55 04 89
Orkolaga 17
943 55 27 41
HERNANI

Osiñagak Zikuñaga papelerako soinuak neurtzeko eskatuko dio udalari

■ Auzo elkarteak zuzendaritza berritu du ■ Igandean, jai batzordea bilduko da datorren ekaineko festak prestatzen hasteko.



Osiñagako auzotarrak aurreko igandeko bileran.

OSIÑAGAKO auzo elkarteak bilera garrantzitsua izan zuen igandean. Erabakietako bat izan da udalari Zikuñagako zaratak neurtzeko eskatzea. Auzotarrek diotenez, azken urteetan fabrika haunditu egin da eta zarata ere bai, auzotik gertuago gelditzen delako. Bileran, auzoko arazoak hitz egin ziren. Batzuk konponduak edo konpontzeko bidean daudenak: zubiak, Arilimoiko bidea, errioren babeseta eta abar. Beste batzuk oraindik konpontzeko daudenak dira: Bideak txukun-

tzeta, *Munttoko* bidea, *Tolarie-tako* sarrera, eurria egiten duenean *Ibai Ondo* eta *Etxe Alai* etxe inguruetan sortzen diren arazoak eta abar.

Auzo elkarteak Kronikari adierazi dionez, aipatutako arazo gehienak udalari dagozkio konpontzea. Datozen egunetan idatziak bidaliko dizkio, konpontzea eskatzeko.

ALDAKETAK

Iragarri bezala, igandeko bileran zenbait aldaketa egin ziren auzo elkartearen zuzendaritzan.

Karguei dagokienez, Mertxe Mendizabalek diru-zain lana utzi eta Joseba Iurramendik hartu du. Beste batzordekide batzuk ere aldatu dira. Hala ere, lehendakari eta idazkari lehenengo berak jarraitzen dute: Arantza Mujikak lehendakari eta Josu Arrietak idazkari.

BILERA IGANDEAN

Igande honetan jaiak antolatzen hasteko bilera egingo da Arriatsun: egunak jarri, errifak antolatu eta abar. Bilera, eguerdiko 12:00etan da. □

JASOTA BEZALA

Asier Ormazabal, euskal presoa Frantzian

Asier 1997tik espetxean dago. Orain, bat-batean, Espainiako Estatura estraditatzeko arriskuan dago. Horrek ekarri dezakeen giza eskubide urraketaekin.

Udaberriatik hona ezin kontatuak dira Asierrek paseak. Zehatz, 17 aldiz espetxez aldatu dute. Bitarte horretan bere senideek zenbait bisita galdu dituzte. Espetxe batean, aita kartzela barruan zegoenean semea bisitatzeko asmoarekin, Asier lekuz aldatua (trasladatua) izan zela esan zioten. Fresnesen egondako batean, isolaturik egon zen. Beste bisita baterako, gurasoak, dena prestatuak zuten urrutiko kartzelera joateko,

Asier han ez zegoela abisatu zieten azken momentuan. Buru-hauste izugarriak dira eta telefonoz emandako azalpenak, gutxi eta gaizki emanak. Beste batean, gurasoei abisatu zieten, bisita bakarrik beraienak izango zirela, anaia, izeba-osabek edo gainontzekoek ikustea debekatuz. Inork ezin zuen Asier bisitatu, gurasoek izan ezik.

Eta azkena aste-bukaera honetan izan da, gurasoak bisitara joan zirenean Fresnesera. Asier bere gurasoekin elkartzera zihoanean, biluztu arazi egin zuten eta arazorik nahi ez zuelako, biluztu egin zen. Baina hori gutxi izan omen zen funtzionariarentzat eta esan zioten biluzik makurtzeko, ipurdiko zuloa erakutsiz indarra egiten zuen bitar-

tean. Asierrek ez zuen onartu irain hori eta arrez geroztik isolamenduan dago zigorra betetzen, bere eskubideak defendatzeagatik.

Esan beharra dago, espetxe aldaketa bakoitzean, Asier jantzitakoarekin bakarrik egoten dela, ez baitiote uzten ezer hartzen. Asteak eta asteak pasatzen ditu bere arroparik gabe, bere libururik gabe, garbitzeko tresnarik gabe...

Senideei behin ere ez diote eman trasladuen berri. 2000 km. egin ondoren, etxera bueltatu dira askotan bere semeaz ezer jakin gabe, ez baitute azalpenik ematen. Alperrik izaten dira egindako gastuak ere: autopistak, trenak, kotxeak, gasolinak, hotelak eta abar...

Hernaniko Etxerat

Ereñotzun Santa Agedako entsaioa gaur iluntzean

■ Ur-Miako lokalean bilduko dira, 20:00etan.

GREBA SELAK ETA SAVERAN

Selak eta Saverako langileek herriko kaleetan egin zuten protesta

■ 2002rako "enpresa pakto duina" eskatzen dute.



Manifestariak atzo Zinkoenara iristen.

SELAk eta Saverako enpresetako langileek greban dira Hernanin. "Lan baldintza duinak" eskatzen dituzte, eta

enpresako zuzendaritzarekin negoziatu nahian dabilta. Atzo manifestazioa egin zuten Hernanin barrena. □

MENDIRIZ MENDI ELKARTEA

Eskiatzera Somport-Candanchura

■ Eski 'alpinoa' eta 'fondo' egingo dituzte ■ Otsailaren 2 eta 3an joango dira.

MENDIRIZ Mendi elkarteak urtero antolatzen du eskiatzera joateko asteburu pasa. Aurten, Somport-Candanchura joango dira. Berez, elkartearen egutegian Caute-retsera joatea zuten pentsatua, baina, planak aldatu egin

behar izan dira.

Prezioak, bazkideentzat 35 euro eta gainontzekoentzat 40. Hor sartzen dira bidaia, afaria, lo egitea eta gosaria. Forfaita ez da sartzen.

Izena emateko epea: urtarilak 31, osteguna. □

ZINEA BITERIN

'Spay game' eta 'Doctor Doolitel II' asteburuan

ROBERT Reford eta Brat Pitt-en espia filma gaur, larunbatean eta igandean Biterin. Gaur 22:30etan da. Umeentzat, berriz, *Doctor Doolitel II*, larunbatean eta igandean. Umeena arratsaldeko 17:00etan da. □

HERIOTZAK

Josefa Agirre Zugasti

Asteazkenean hil zen 86 urte zituela

Hileta elizkizunak, gaur ostirala, 19:00etan, Juan Bataiatzailea parrokan.

IRRATIAK

(F.M. 99,2) 12:00: Bertso Eguneko kontuak: elkarrizketak, iritziak...
22:00: *Rassklat* musika afrikar saioa.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750
►Jokalarri anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Etxebeste
Elkano 2
☎ 943 552087
►Gauetz: Oa
Usurbil. 1 poligonoa, 1
☎ 943 376076

ESKOLARTEKO KIROLA -ASTEBURUKO PARTIDUAK-

SASKIBALOA	TALDEAK	NON	BIHAR	PELOTA	TALDEAK	NON	BIHAR
Infantil mutilak	Langile-Aldapeta	Kirolegia	11:45	Benjaminak	Elizatzu-Urumea	Kirolegia	9:30
Infantil mutilak	La Salle-Inmaculada	Donostia		Benjaminak	Langile A, B, C	Kirolegia	10:30
Alebin mutilak	Inmaculada-Olaeta	Kirolegia	10:15	FUTBOLA TALDEAK NON BIHAR			
Alebin neskak	Elizatzu-La Salle A	Kirolegia	10:15	Infantil neskak	Langile-Sto Tomas	Donostia	
Alebin mutilak	C. Eraso-Langile B	Donostia		Infantil mutilak	Leitzarain-Urumea	Andoain	
Alebin mutilak	Herrera-Langile A	Donostia		FUTBOL SALA TALDEAK NON BIHAR			
Alebin neskak	Oize-Urumea	Donostia		Benjaminak	Elizatzu A-Langile A	Kirolegia	9:15
Alebin neskak	Azula-Langile	Donostia		Benjaminak	Langile B-Urumea	Kirolegia	10:00
				Benjaminak	Inmaculada-Elizatzu B	Kirolegia	10:45

IRAGARKI MERKEAK

■ Astelehenean ostiralera, goizetan umea zainduko duen pertsona bat behar dugu. Donostiako Aiete auzoan. Astean 35 ordu eta irakasleen egutegia. Interesatuak deitu 943 314784 (Bakarne)